

AMA-ALABA TRANSMISIOA

Baserriko onenaren xarmari zapore berriak ipini dizkiote Iztueta esnekietan

 **JENDARTEA** / Nerea GOTI

Mariaje Intxaustik eta Ainitze Salak «esnetan bizi» direla diote. Behi esneen hazienda ezagutu dute lau belaunaldik Lazkaoko baserrian. Garai batean esnea marmitetan eta gero poltsetan saltzetik esnegintza ekoizpen eredugarri batera egin dute salto, ofizioa gaurkotuz. «Baserriak aukera asko ditu, ilusioa behar da», nabarmentzen dute.

Iztueta izena dute, sorre-
ra lekua duten Lazkaoko
baserriak bezala. Etxeko
esnea, jogurtak eta izoz-
ki preziatuak dira. Itxu-
ra berrikoak kanpotik
eta zapore ezberdinekoak barru-
tik, lau belaunaldiko ibilbidea
duen proiektu baten emaitza di-
ra Iztueta Esnekiak. Buruan bi
emakumeren gidaritza duen
proiektuak arbasoengandik jaso-
tako lanbidea eta lan egiteko era
gordetzen ditu. Produktuok Gi-
puzkoan merkaturatzen dituzte,
eta «oso harrera ona» izan dute.
Diotenez, ikusi dute badagoela
ekoizpen eredu jakin bat esker-
tzen duen bezeroen merkaturia,
kontzientzia maila handikoa.

Lanbidearen transmisio ho-
rren protagonista dira Mariaje

Intxausti eta Ainitze Sala ama-
alabak. Ondoan, beste emakume
baten laguntza dute, Itziar Or-
mazabalena. Nabarmentzen du-
tenez, etxekoen laguntza ere iza-
ten dute noizean behin, esku bat
botatzea beharrezkoa denean.

Milurteko jarduera baten ga-
rai ezberdinak ezagutu dituzte.
Esnea lehengai hartuta transfor-
matu egiten dute, esneki forma
ezberdinak emanaz tresna be-
rrien laguntzarekin. Hori bai,
etxean ikasitakoa ahaztu gabe,
ama lurra eta animalien zaintza
lehenesten dituen eredu baten
azken katebegia apurtu gabe,
hain zuzen.

“Zer jan hura izan” esaera ai-
patzen du Salak elkarrizketa ha-
si eta gutxira, eta merkatura
eramaten dutenaren kalitateari

neurria hartzeko, gauzak egite-
ko forma berezi horretatik tira-
ka, gaineratzen du “nola ekoiztu
hura produzitu” ekuazioa ere
bete-betean ematen dela Lazka-
oko baserriko larreetan hasten
den prozesu osoan.

“Esnetan bizi gara” dute lelo.
Salak gogoratzen duenez, aitona
hasi zen esnea marmitetan ba-
natzen, mando batekin. Amak
eta izebak jarraitu zuten ondo-
ren, eta, nabarmentzen duenez,
«nahiko aurrerakoiak» izan zi-
ren garai hartan. «Amak beti bo-
rrokatu du baserriaren alde. Be-
ra izan zen, adibidez, esnea
marmitetan saltzen hasi ostean,
Europar Batasunak ekarritako
neurri aldaketekin poltsetan
saltzera igaro zena, gordinik ha-
siera batean eta pasteurizatuta
gerora», nabarmendu du.

BASERRIAREN ALDEKO BORROKA


Umetatik ikusi eta bizi izanda-
koa zuen, beraz, begi aurrean
Salak bere bizitzaren norabidea
aldatu zuen erabakia hartzean.
Duela hamar urte izan zen. Uni-
bertsitate ikasketei lotutako lan-
bide bat zuen, bulego batean.
Ukuiluan berrikuntza batzuk
egin behar ziren eta baserrian
lanean norbaitek jarraitu behar
zuen jakin behar zuten urratsa
egin aurretik. «Ongi pentsatu
ondoren, azkenean hausnartu

nuen beti ikusitako bizimodu
horrek bizirik jarraitzen zuela,
hori polita zela eta horren alde
borrokatzeko hautua egin nahi
nuela», gogoratu du Salak.

Argi zuten lan egiteko mo-
duak jasangarria izan behar zue-
la, etxean mamitutako printzi-
pioa jarraituz. Hori bai, eredu
mantendu eta sektorea gaurko-
tzea bateragarriak direla argi iza-
nez. Salak zehaztu duenez, «pro-
dukzio txiki batean zentratu»
eta ekoiztutako guztia salmenta
zuzenera bideratzea zen xedea,
eta, hala, Europara jo zuten ere-
du berrien bila, Austriara, Herbe-
heretara, Italiara... «Interesgarria
iruditzen zitzaigun ikusitakoa,
eta, hala, aurrera egin eta gauzak
ahal dugun ondoen egiten saia-
tzea erabaki genuen».

«Aldaketa asko egin genituen,
behiak elikatzeko eratik bertatik
hasita», gogoratu du. Hektarea
bakoitzeko behi bat jartzea era-
baki eta ukuiluan eta larreetan
espazio zabalak egokitu zituz-
ten. Argitu duenez, eguraldi
onarekin, goizean jetzi ondoren
larreetara ateratzen dituzte abe-
reak, eta arratsalde partera arte
kanpoan ematen dute eguna.
Behin ukuiluan, berriro jezten
dituzte. Pentsa, Iztueta hazien-
daz «animaliak konfort maila
onean» bizi direla eta horren
emaitza «bikaina den esnea» de-

Behean, ezkerrean, Iztueta
Esnekiak markarekin
merkaturatzen dituzten jogurt
eta izozkiak, eta, eskuinean,
Ainitze Sala ukuiluan. Ondoko
orrialdean, Ainitze Sala eta
Mariaje Intxausti ama-alabak.
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



Igo zuhaitzera!

**Maiden lantzi
Goienetxe**


Heziketa txarraz idatzituen aitzinekoan, eta

horri helduko diot berriro, bertze ikuspegi batetik, aunitz pentsatzen dudana gaia delako, kezkatzen nauena eta ingurukoekin komentatzen dudana. Zenbatez zoriontsuago izanen ginen bakoitza garen bezalakoa izanez, eta ez bertze inor, ez bertzeek nahi edo espero dutena.

Idea hori etorri zait Hazte Oir plataforma ultrakatolikoaren autobusa geldirik ikustean, eta Munita eta enparauak sutan (Eliza katolikoak gudan duen pisu itzelaz bertze batean idatziko dut). Chrysallis EHk ume transexualak kontent bizitzearen alde egindako kanpaina entzutetsuari erantzuten dio "Háztelo Mirar"-ekoen autobusak. Baina jendeak eta honekin batera instituzioek gasolina kendu diote.

Haur transexualen familien elkartekoak pozarren daude horrekin. «Jendartea prest dago. Paradigma aldaketa historikoa da: diren bezala biziko diren transexualen lehen belaunaldia izanen da. Zinez hunkigarria da», adierazi du Bea Server kideak. Eta aniztasuna onartzean norbere buruari, eta guztiei, on egiten diegula erantsi du. Hala dela iruditzen zait bete-bete. Askatasuna irabazten dugu, izugarrizkoa. Txikitatik norbera den bezala tratatzeko sentsibiltatea aldarrikatzen dut, oraindik kalean haurrek «*mari-cón*» oihukatzen duten garaian, oraindik desberdina seinatu eta epaitzen den garaian, oraindik gure irudimenari eta izaerari mugak jartzen dizkion heziketa jasotzen dugun garaian (ez soilik eskolan, toki guztietan, denok baikara hezitzaile eta hezitako).

Eskolako heziketaren giltza den ebaluazioaren inguruan lanketa zabal bat egiten ari diren LABeko kideak azaldu didaten bezala, ez du balio elefanteak, tximuak, krokodiloak eta mota guztietako animaliak dauden oihanean honako azterketa jartzeak: igo zuhaitzera! •



la utzi zuen idatzita Alina de Castro albaitariak. Salak nabarmendutakoaren arabera, adituen jarraibideak hartzen dituzte kontuan. Horretan ez dute zalantzarik: «gure lehengaia den esnea ezin hobe bada, jogurtak eta izozkiak ere ezin hobeak izango dira». Horregatik, Iztueta baserrian, belarra «urrea bezalakoa» dela diote irmo.

GARDENTASUNA LANTZEN

Gipuzkoara mugatzen da euren merkatua, eta prozesu osoa burutzen dute, ukuilutik dendarainoko banaketara bitarte. Bide osoa gardentasunez erakusteko,

ate irekiko ekimenak antolatzen dituzte asteburuetan, bisita gidatuen bidez. Azkenekoan erditze bat ikusi ahal izan zuten bisitariek, kontatu dutenez.

Kontsumitzaileen ahotara doazen jogurt eta izozki krematsuak «ez dira arruntak, ezberdinak dira». Paperezko ontziak dituzte eta zapore berriak sartu dituzte, arabarbazkoa duena barne. «Barazki gozoa» da, postretarako asko erabiltzen dena, baina Euskal Herrian ez da oso ezaguna. Iztuetaoek Iparralde-tik Lazkaoko baratzerara ekarri zuten eta bertan ekoizten dute jogurtera eramaten duten ba-

razki digestiboa, oso emaitza onekin.

Hiru seme-alaba txikiren ama da Sala, eta ez da egindako hau-tuaz damutu. Ez hori bakarrik, baserrian sinesteko mezua ere zabaldu nahiko luke. «Gogo handia izan behar da, hori bai, eta egiten duzunean sinistu», azaldu du. Bizimodu gogorra bada ere, gogo eta ilusioarekin batera, antolakuntza aipatzen du lazkaotarrak, lanbideak antolatzeko era ezberdinak ematen baititu. «Sinistu dugu baserritik bizitzea posiblea dela, produkzio txiki eta salmenta zuzenarekin. Gure apustua horixe da».